

ZEOZERTAN DABIL BAINA EZ DAKIT ZERTAN

FAMILIA EREDUEI BURUZKO *SITCOM* POETIKOA

ANTZEZLANA

METROKOADROKA KOLEKTIBOA

Zergatik dira familiak hain inportanteak?
Zergatik ezin gara denok bakean bizi?
Zergatik hiltzen da jendea? Zergatik da
guztia hain garrantzitsua familia bat nor-
beraren nortasunean? Sinesten duzu
konstelazio familiarretan? Fededuna
zara? Familia monogamoa duzu edo
familia aunitz dituzu? Zergatik oinarritzen
dira planetako sistema politiko guztiak
familietan? Zergatik da familia mende-
balدارra gehien balio duena? Badau-
de beste familia egitura batzuk beste
kultura batzuetan? Zergatik ez gara
beste era batera antolatzen? Zein
da bizitzaren zentzua? Zergatik era-
baki dugu familiei buruzko antzezlan
bat egitea? Zergatik uste dugu iritsi
gaitezkeela nolabaiteko konklusioen
batera? Zer egin dezakegu guk? Hau
familia bat da? Antzezlan honetako eki-
poa familia bat da? Zer da familia bat?



AURKIBIDEA

1. SINOPSIA	5
2. AURKEZPENA	6
3. ANTZEZLANA SORTZEKO SAREA	7

AURREKARIAK

4. ISTRIPU KUTUN BAT	9
5. PROIEKTUAREN OINARRI FILOSOFIKOA.....	10
6. IKERKETA: BARRE ENLATATUEN POESIA.....	11

LANTALDEA

7. FITXA ARTISTIKOA.....	13
8. KONPAINIA.....	14
9. AKTORE SORTZAILEAK.....	15
10. KANPO BEGIRADA	17
11. LANTALDE TEKNIKOA.....	19

1. SINOPSISIA

Etxe bat, edozein etxe. Egongela bat, edozein egongela. Hiru lagun, elkarri galdezka: “Gu familia bat gara?”. Antzezlana hasi eta ikusleak ez du argi izango zein den hiru pertsonaien arteko harremana, baina bere ekintzen harira joango da deskubritzen hiruko honek ezkututzen duena. Hari horretan, familiari loturiko galderek, kontraesanez eta umorezko zirtoek zeharkatuko dute antzezlana. Familiaren ideiatik tiraka *sitcoma* eta poesia bisualaren arteko antzezlana osatu du Metrokoadroka kolektiboak.

2. AURKEZPENA

Metrokoadroka kolektiboak antzezlan berria jarri du martxan, ohiko lantaldeko kideak azken urteetan antzerkigintzan gertu sentitu ditugun beste sortzaile batzuekin elkartuta.

Helburua honakoa izango da: jendeak gertukoa sentituko duen antzezlan bat egitea, edonork bere egin dezakeen gai batean oinarritua, era berean estetika aldetik esperimentatuz eta arriskuak hartuz.

Horretarako, umorearen bidea hartuko dugu, telebistako sitcom-a eta antzerkiko komedia kostunbristako elementuak erabiliz, eraikiz, eta poetikoki desegituratuz, antzezlan honen dramaturgia propioa sortzeko bidean.

3. ANTZEZLANA SORTZEKO SAREA

Azken urteetan zeresan handia eman duten lanen egile da lantaldea, Metrokoadrokan bertan, banaka edo beste kolektibo batzuetan. Antzezlan honetarako lantalde kreatibo eta tekniko anitz eta zabala elkartzeaz gain (ikus ekipoa amaierako atalean), antzezlana gauzatu ahal izateko aliantzen sarea joan gara eraikitzen:

- Ozaetako **Garaion** Sorgingunean egin dugu lehenengo egonaldia.
- Azpeitiko **Dinamoan** bigarrena, **Kulturaz Kooperatibarekin** elkarlanean. Dramaturgia berrien inguruko mediazioak egingo ditugu, elkarlanaren barruan.
- Errenteriako **Lekuona Fabrikarekin** elkarlanean egingo ditugu bi egonaldi eta *work in progress* bat. Dramaturgia berrien inguruko mediazioak egingo ditugu, elkarlanaren barruan.
- **Eztena jaialdiaren** barruan egingo da lehen erakustaldia.
- **Bilboko BAD jaialdia** zabalduko dugu 2022ko urrian, aurrestreinaldi modura.
- **Azpeitiko Antzerki Topaketetan** egingo dugu estreinaldia.

Horrez gain, Oscar Picazok gidatutako **ENTER Banaketak** proiektu berriaren eskutik egingo dugu banaketa.



4. ISTRIPU KUTUN BAT

2016an Metrokoadroka konpainiako kideek honako mezua jaso zuten programatzaile baten aldetik:

Egun on,

Oraingo honetan informazio eske natorkizue, “ZEOZERTAN DABIL, BAINA EZ DAKIT ZERTAN?” emanaldia eskaintzen zabilzate? Baiezkoa bada erantzuna, informazioa bidali ahal zenidake mesedez? (aurkezpen testu, beharrizanak, prezioa...)

Besterik ez baina zuen erantzunaren zain gelditzen naiz, bitartean ondo segi

Erkuden

Hasieran ez genuen ulertu zer gertatzen zen, baina gutxira, barrezka hasi ginen. Imajinatu genuen bi programatzailearen arteko dialogo birtuala: “Zuk badakizu Metrokoadroka taldeak baduen lan berririk?” “Bai: zeozertan dabil, baina ez dakit zertan”.

Bestetik, esanguratsua ere iruditu zitzaigun: kulturgintzan eta, oro har, **egunerokoan bizi-abiadurak sortzen dituen inkomunikazio egoera absurdoek** kezka eragiten digute. Ez ote dugun, sarritan esaten den bezala, elkarren inoiz baino informazio gehiago dugun honetan inoiz baino gutxiago elkar ezagutzen.

Noizbait Zeozertan dabil baina ez dakit zertan performancea benetan egingo genuela zin egin genion gure buruari. Eta, ezustean, **ditxosozko pandemiak sortu digu beharra.** 2020ko itxialdian inoiz baino kontzienteago izan ginen: mundu guztia dabil zeozertan, baino inork ez daki benetan zertan.

Pandemia betean, lagun min batek esan zigun itxialdia sekulako depresio larriarekin pasa zuela. Kontua ez litzateke harritzekoa, tarteka itxialdian *skype* bitartez egon izan ez bagina. Nola da posible elkarri hain gutxitan aitortzea nola gauden? “Zer eskatzen diozu bizitzari?” galdetu nion lagunari, depresioaren berri eman eta paseatzera irten ginen lehenengo aldian: **“Zentzurik gabe barre egiteko beharra daukat”**, esan zidan.

Espero gabeko pandemia bizipen honetan, ordea, galdera asko geratu dira agerian: zer da unitate familiar bat? Nola saretzen ditugu gure afektuak? Nor geratzen da bakardadean muturreko egoera batean, eta zergatik? Familiaren ideia eraman gaitu horrek zuzenean.

5. PROIEKTUAREN OINARRI FILOSOFIKOA

“Benetako abenturazalea ez da munduari buelta ematen diona, bere bizilagunaren lorategiko hormaren gainetik salto egiteko kapaza dena baizik. Eta, behin salto eginda, bizilagunarekin harreman bat hasi”.

G. K. Chesterton

Antzezlan honek **komediaren elementu klasikoek jolasten du, dramaturgia berrietako elementuekin uztartuz**: zer atera daiteke telebistako sitcom bat, umorerik absurdoena eta performancearen elementuekin uztartuta?

Bizi dugun garai aurre-post-pandemikoan biziki interesatzen zaigu **komediaren mundua ikertzea lengoia eszeniko berrien bideetatik eta egungo jendartearen beharrik humanoenetatik**. Horretarako, sitcom-arena bezalako imajinarioak desegituratuz abiatuko gara, beti ere egindako lana gorputzetik pasatuz, eta publikoarekiko harreman zuzen bat bilatuz.

Chestertonek bere aipuan iradokitzen duen bezala, **etxe barruetan mundu osoak existitzen dira, agian etxe barruak dira esploratzeko geratzen diren mundu harrigarri bakarrak**. Akaso, bidaiarik harrigarrienak gaur egun ez dira lurralde urrunetara egin daitezkeenak: edozein bizilagunaren etxe-barrua da benetako lurralde ezezaguna.

Eta zerk islatzen du hobekien etxe barruko munduen labirintoa, **familiaren ideiak** baino?

6. IKERKETA: BARRE ENLATATUEN POESIA

Nola egin bidea *sitcom* batetik Beckettera? Nola pasatu dekoratu naturalista batetik espazio poetiko batera?

Zinema eta telebistak barrearen kodea unibertsalizatu dute; produkzio ipar-amerikarren eraginez, neurri handi batean. **Barrearen homogeneizazio horrek zalantza asko ekar litzateke, baina baita gogoeta interesgarri asko** ere: zer litzateke egun gure bizitzetaz Marx anaiek hitzek diotena hitzek diotena baino gehiago dela erakutsi izan ez baligute?

Telebistako komedia klasikoak, situazioko teatroak, endredoetako istorioak, gaizki ulertuak, familiaren eredu kontserbadoreak... eta barre enlatatuak. **Azalekoa dirudien komedia klasiko burgesak elementu interesgarri ugari ditu esploratzeko, lerro artean arakatzeko hasiz gero:** genero rolak, familiaren eredu kontserbadoreak, arraza, eremu pribatuko gatazkak... etxe barrua mundu ikuskera bat eraikitzeko espazio bitala bezala. **Etxe barruko imajinarioari begirada politiko eta performatibo bat luzatu nahi diogu,** pertsonala politikoa delako.

KOMEDIAREN IKERKETA BAT XXI. MENDERAKO

Eta, gainera, agian, komedia haietan bezala, ondo pasatzeko aukera bat eman. Izan ere, **zergatik eragiten digu barre, eta zergatik?** Barre enlatatuak noiz eta nola barre egin markatzen digute, kasu egiten diegu? **Kutsatzen zaizkigu barre enlatatuak?** Barre enlatatuak, kontserbakako elikagaiak dira, etorkizun post-apokaliptiko baterako?

Etxe-barru horiek espazio poetiko bilakatu zitzaizkigun teatro absurdoarekin, eta, batez ere, *Godoten esperoan*en agerpenarekin, umorea txistetik haratago garai historiko baten isla gupidagabea izan zitekeela ikasi genuen. Umorea izan daitekeela ikuslea errepikapenaren poderioz ezeroso sentiaraztetik datorren eztanda urduria, ez-ulertzearen poderioz harridurak ekartzen ahal digula ezusteko barre algara bat. Eta, bestetik, **umorea minean jatorria duela erakutsi zigun Godotek:** min pertsonal, historiko, sozial batean eduki dezakeela jatorria, forma poetiko zirtolari bat har dezakeela minean jatorria duen umoreak.

Pertsonak mundua ulertzeko istorioak behar dituen bezala, barrea behar du bizitzeko dakarren mina arintzeko, guztia deskontrolatuta dagoenean zeoz kontrolatu ahal izateko: barrea, salbamenduzko txaleko hori. Zer nolako umorea topatu dezakegu garai aurre-post-pandemiko honetan?



7. FITXA ARTISTIKOA

Konpainia: Metrokoadroka

Zuzendaritza: Marina Suarez Ortiz de Zarate
Oier Guillan.

Aktore sortzaileak: Maite Aizpurua
Edurne Azkarate
Javier Barandiaran

Jantziak: Idoia Beratarbide

Ekoizpena:..... Oscar Picazo (ENTER banaketak)

Argiak: Junki Mayo

Soinua:..... Patxi Suinaga

Eszenografia laguntzailea:..... Alvaro Ledesma

Argazkiak: Mendi Urruzuno
Kulturaz

Laguntzaileak:..... Garaion Sorgingunea
Dinamoia
Kulturaz Kooperatiba
Lekuona Fabrika
Errenteriako Udala
Eztena jaialdia,
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritza

8. KONPAINIA

METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIA (2008, OIARTZUN-ORERETA)

www.metrokoadroka.eus

Metrokoadroka Sormen Laborategia Oiartzun eta Errenteria/Oreretako artista sare batek sortu genuen 2008an, helburu honekin: arte eszenikoetan eta arte plastikoetan proiektuak sortzea, laguntzea eta zabaltzea, beti ere kulturarekiko ikuspegi kritikoari eta esperimentazioari lehentasuna emanez. Diziplina artistiko ezberdinak uztartzea da esperimentazio horren oinarri nagusietako bat.

Arte plastikoei dagokionez, 2014an Oiartzunen zabaldutako EHUNTZE sormen espazioaren baitan gauzatzen dugu hainbat proiektu (sormen laborategiak, mikroerrezitaldiak, “21 aulki” arte zikloa...).

Arte eszenikoei dagokionez, performancea, interdiziplinitatea, poesia fisiko-bisuala eta site specific proiektuak izan dira nagusi gure ibilbidean. Hauek izan dira gure azken lanak: *Bidaide* (2021), *Andrezaharraren manifestua* (2020), *Txolarte* (2020), *Aldarri* (2019), *Zauri Bolodia* (2019), *Hugo, nor dada Emmy?* (2019), *Zanbuia!* (2018) eta *Miss Karaoke* (2017).

www.metrokoadroka.eus

9. AKTORE SORTZAILEAK



MAITE AIZPURUA OLAIZOLA, 1990, ZUMAIA.

Kuriositate aseezineko galdera egile herrena. Soziologia eta Kultur eta Gizarte Antropologia ikasketetan lizentziatua (EHU, UFBA). Donostiako TAEn Antzerki Ikasketak burutu ondoren (2012-2014) Goi Mailako Arte Dramatikoan (DANTZERTI 2019) titulatu zen. Formazio osagarria jaso du: Body Weather (Andres Corchero), dantza garaikidea (espaciopropio.augenblick), Butoh (Jonathan Martineau), Clown (Virginia Imaz), Bufoigintza (Andres del Bosque)...

Mugimendu sozial eta feminista hainbatetan aritua neska koskorra zenetik, arte eszenikoak ikerketa artistiko eta soziala, lan kolektiboa eta grina aktibista gurutzatzeko aukeratzat ditu. *Erresistentzia arazo fisikoa da* azken lanarekin dabil martxan, herren bezala bizitzako esperientziatik abiatutako ikerketa biografiko-eszenikoa. Dramaturgia eta interpretazio kodigo garaikidetan arakatzuz, kapazitismoa eta lodifobia bezalako gaiak landu ditu proiektu honetan Matxalen de Pedro Larrearen bidelaguntzarekin.

Azken urteetan Metrokoadrokarekin kolaboratu izan du site-specific proiektuetan (2017-2020) edota Eztena Jaialdiko Espe Lopezek gidatutako “La Mirada” laborategian (2019). Horman Poster Kolektiboko kidea da (www.hormanposter.eus), lan eszenikoen ekoizpen eta sorkuntzan zein arte-hezkuntzan lan eginaz. Besteak beste, *Antigone edo ezetzaren beharra* eta *Antigone metodoa* proiektuetan.

www.mao.eus



EDURNE AZKARATE SOBRINO. OION, 1993.

Gaztela eta Leongo Arte Dramatiko Goi Maila Eskolan Testu Interpretazioan ikasketak amaitu dituenetik, Leticia Santafé, Gregorio Amicuzi edo Veronica Ronda bezalako maisuekin ikasten jarraitu du. TR Warszawa konpainiako *Transmisja* eta *GEN* antzezlanetan parte hartu du Grzegorz Jarzynaren zuzendaritzapean. Ikus-entzunezkoen esparruan, hainbat websail eta film laburretan parte hartu du, eta baita ETB1eko zenbait saio gidatu ere. Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Axut!-en *Zaldi Urdina* antzezlanean izan du antzokiko azken antzezpena, obrak 80 emanalditik gora egin dituelarik. Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondoa

eta Eszena Zuzendaritzan masterra burutu ostean, eratu berri den Formol Laborategiak ekoiztako lehen antzezlan estreinatuko du aurten, zuzendari gisa. 2022an antzezle lanera bueltatuko da Metrokoadrokaren eskutik eta Paul Urkijoren *Irati* filmean izango da zinean estreinakoz.



JAVIER BARANDIARAN MELERO. DONOSTIA, 1969.

Ados Teatroa, Trapu Zaharra, Théâtre du Rivage, Théâtre du Versant, Hika, Huts Teatroa, Rouge Eléa eta L'Alakran-Oscar Gómez Mata konpainiekin aktore lanak egin ditu.

Metrokoadroka kolektiboarekin aktore-sortzaile jardun da *Poza*, *Salto*, *Su Izan Nahi* eta *Zanbuia* lanetan eta zuzendari artistiko *Zertarako hegoak*, *Gabrielen lekua* eta *Miss Karaoke* lanetan.

Mécanica Théâtre konpainiarentzat idazketa eta zuzendaritza lanak egin ditu *Les gens sont bons (en général)*, *Une psychiatre descend les escaliers et tout d'abord on n'en voit que ses pieds* eta *La Baleine* lanetan.

J.B. Pedradas zigilupean neurri txikiko hainbat ikuskizun sortu ditu. Hala nola, *Errare Hvmannvm Est*, *Pepinos Podridos (en el frigo)*, *No Estoy Para Nadie*, *Aquí va a venir un cataclismo (El diario de Montse Miguèlez)* eta *Bélmez*.

10. KANPO BEGIRADA



MARINA SUAREZ ORTIZ DE ZARATE (GASTEIZ, 1988)

Artista bisuala, eszenikoa eta interpretea. *Arte Ederretan* lizentziatua UPV/EHUn. *Práctica escénica y cultura visual* (UCLM, Artea, MNCARS) masterra ikasi zuen Madrilén. Bere formakuntza arte plastikoen eta praktika eszenikoaren artean doa.

Izaera ezberdineko banakako nahiz taldeko proiektuetan lan egin du artista eta konpainia nazionalekin zein nazioartekoekin, eta hainbat arte espazioetatik pasatu da. Bere lanak eta kolaborazioak hainbat gune, jaialdi eta galeriatan ikusi ahal izan dira.

2013tik bere jarduera *Baratza* aretoarekin oso lotuta dago. Bertan, *Parasite* konpainia egoiliarrekin lotuta dagoen sorkuntza-lanaz gain, hainbat proiektutan lan egin du: jaialdiak programatu ditu, ekitaldiak koordinatu eta zabaldu ditu, eta pedagogia landu du ere. Gaur egun, aretoko *Eszena-sorkuntzako Laborategia* zuzentzen du, eta hainbat sortzaile berrien sorkuntza-prozesuetan laguntzen du. *Tripak* konpainiaren sortzailea eta kidea ere bada.



OIER GUILLAN BERMUDEZ, 1975, DONOSTIA-ORERETA

Idazlea, kazetaria, antzerkigilea. Hainbat liburu kaleratu ditu poesia, narrazioa eta antzerkiaren arloan, azkenak *VHS* (Susa, 2020), *Aire ikusezina* (Kutxa-Algaida, 2019) *Zauri Bolodia* (Txalaparta, 2018), *Mr. Señora* (Txalaparta, 2016), *Elkartasun basatia* (Susa, 2013), *Hura ez da lekua* (Txalaparta, 2012), *Herio heroi/Arra.Arraroa* (Artezblai, 2010), *Eskuen sustraiak* (Susa, 2009) eta *Ate hautsiak* (Arabako Foru Aldundia, 2008).

2008tik Metrokoadroka kolektiboko partaidea da, bertako kideekin taularatu ditu aktore zein zuzendari gisa *Txolarte*, *Hugo, nor dada Emmy?*, *Zanbuia!*, *Miss Karaoke*, *Poza*, *Su izan nahi*, *Salto* eta *Zertarako Hegoak* bezalako lanak. Metrokoadrokarekin performancea, poesia fisikoa eta umore absurdoa landu ditu batez ere. Kode horietan oinarrituta *Tartean dauden gorputzak* ikastaroa ematen jardun da azken urteetan, Javier Barandiaranekin batera.


L'Alakran (Cromlech), *Dejabu panpin laborategia* (Gure bide galduak; Arrastoak), *Anakrusa* (Tempus-i), *Kamikaz kolektiboa* (Kafka; Panpina) eta Rouge Elea (*Ceci est la couleur de mes rêves/Hau da nire ametsen kolorea*)

taldeekin kolaboratu du, eta *Gabrielen lekua* eta *Nola belztu behar zuria* (Bide Ertzean taldearekin batera) emanaldi hibridoetako kide izan da.

1996. urtetik Mikelazulo kultur elkarteko kide da; bertan urte luzez laborategi lanak egin ditu, arte diziplina ezberdinak uztartuz. Besteak beste, arte eszenikoei loturiko proiektuak garatu dituzte Senegal-Cassamance, Ekuador, Bosnia eta Saharan.

Antzerki eta literatura arloko sari ugari jaso ditu, azkenak biak 2018an: Cafe Bar Bilbao antzerki labur saria Ero, ia lanagatik, eta Donostia Hiria Literatur Saria antzerki arloan *Aire ikusezina* lanagatik.

11. LANTALDE TEKNIKOA



IDOIA BERATARBIDE ARRIETA, 1977, OIARTZUN.

Zuzendaritza artistikoa, estetika

Ilustratzailea, jantzigilea, zuzendaria, hezitzailea. 1999an Arte Ederretan Lizentziatu zen. Sorkuntzaz gain, hainbat zeregin bete ditu kulturgintzaren barruan: Errenteria/Oreretako Mikelazulo kultur elkarteko kudeatzaile eta eragile izan zen; Edo! argitaletxean eta Ganbila antzerki bilduman editore lanak egin zituen; Metrokoadroka kolektiboaren bultzatzaile eta taldekide da eta honen baitan aktore, koordinatzaile, diseinatzaile eta arropa egile lanak egiten ditu. 2013an 100tze espazioa zabaldu zuen Oiartzunen haur eta gazteen sormena garatzeko eta, oro har, sorkuntza garaikidea bultzatzeko helburuarekin.

Arte eszenikoak

Arte eszenikoetan antzezlan ugarritan parte hartu du oholta gainean, bai Mikelazulo bai Metrokoadrokarekin, haien artean azkenak *Zauri Bolodia performance* (2019), *Hugo, nor dada Emmy?* (2019), *Zanbuia!* (2018) eta *Su izan nahi* (2015).

Zuzendari eszeniko bezala *Andrezaharraren manifestua* (Metrokoadroka, 2020), *Pessoak atera zuen Sarrionandia kartzelatik* (Loraldia, 2020), *Munduko Poesia Kaia* (Susa, 2019) proiektuetan parte hartu du.

Marodi sorkuntzak

Maria de Bernardorekin batera “Marodi sorkuntzak” proiektua sortu zuen 2007. urtean. Bertan jantzigintza artistikoa landu izan dute, bi norabide-tan. Batetik beren diseinu propioak landu eta saldu dituzte hainbat azo- ketan, eta bestetik, oholta gaineko proiektu ezagunen jantziak diseinatu dituzte azken urteetan, besteak beste, *Panpina hautsiak* (Hatxe musika taldea), *Zaldi Urdina* (Artedrama/Dejabu/Axut), *Kaskarot* (Atx Teatroa), *Inondik inora* (Benetan Be), *Conversation avec un arbre* (Rouge Elea), *Francoren bilobari gutuna* (Artedrama/Dejabu/Petit theatre du Pain), *Miss Karaoke* (Metrokoadroka), *Hozkailua* (Huts Teatroa), eta abar.



OSCAR PICAZO RODRIGUEZ, 1975, DONOSTIA-ERRETERIA.

Ekoizlea, banatzailea.

Kazetaritza eta publizitatean lizentziatua EHUn, hainbat komunikabideetan lan egin du hala irratian (Herri Irratia, Cadena Ser, Onda Cero, Erreterria Irratia) nola prentsa idatzian (Pasaian, Hirian), guztietan zuzendari, errealizadore, ekoizle, idazle edota gidoilari.

Momodijidopoak literatur taldeko sortzaileetako bat izan zen, Erreterria/Oreretako Mikelazulo kultur elkartearekin. Ondoren, OMO antzerki-poesia taldeko kide izan zen, non idazle, poeta, dramaturgo lanak egin zituen.

Bestetik, hainbat kultur proiekturen bultzatzaile izan da: Federico Garcia Lorcari buruzko jardunaldiak Erreterrian, eta poesia errezitaldi kolektibo anitz. Besteak beste, *Señas de identidad* izeneko irakurketa dramatizatuetan parte hartu zuen, M^a Cruz Irazabalen zuzendaritzapean, besteak beste, Gasteiz, Zaragoza eta Ciudad Realen.

Idoia Beratarbide artistarekin elkarlanean *Zergatik etortzen da gaua?* haurrentzako album ilustratua argitaratu zuen, Erein argitaletxearen eskutik.

Azkenaldian Arantxa Ezquerrarekin batera zuzendu du *Emakumeak mugimenduan ikuskizuna* (2019-2020) migratzaileen testigantzez osatua: bertan zuzendaritza, kudeatzaile eta ekoizle lanak egin ditu batetik, eta gidoi eta dramaturgia lanak bestetik.

Komunikazio eta diseinu grafiko enpresa baten gerentea da 2012tik gaur arte, non proiektuen kudeaketa eta koordinazio lanetan espezializatu den.

ZEOZERTAN DABIL BAINA EZ DAKIT ZERTAN

BANATZAILEA



ENTER banaketak
Oscar Picazo Rodriguez

+34 696 650 961
oscar.picazo@me.com

KOMUNIKAZIOA



Metrokoadroka
Sormen Laborategia

+34 679 977 276
metrokoadroka@metrokoadroka.eus
www.metrokoadroka.eus

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ETORKIZUNA
ORAIN

